

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko urriaren 6ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Zerga premiazko araugintzako dekretua:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2020 zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea COVID-19arekin lotutako premiazko zerga neurri gehigarriei, Arabako zerga sistema osatzen duten zerga jakin batzuetan.

– Foru dekretuak:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea Arabako Foru Ogasunaren aurrean aitortpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea aldatzeari Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko administrazio prozedura arautzen duena.

– Erabakiak:

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 441/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoa Arabako Foru Aldundiaren Aldundi Digitala egoitza elektronikoen barruan sartzeko hitzarmena izenpetzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 442/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoa Arabako Foru Aldundiaren Aldundi Digitala egoitza elektronikoen barruan sartzeko hitzarmena izenpetzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 443/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea prozedura ireki bidezko kontratazio espedienteari, posta zerbitzuak emateko Arabako Foru Aldundiari, haren erakunde autonomo Gazteriaren Foru Erakundeari eta derrigorrezko dirubilletaren erakunde kudeatzaileari, 2.423.081,22 euroko aurrekontuarekin eta kontratua formalizatzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 444/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea atxikitako organismoen instalazioak berogailuko C gasolioz hornitzeari buruzko esparru akordioaren 2021erako luzapenari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 445/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea 25/2020 konpromiso kreditua birbanatzeko espedienteari, aurrekontu esleipenak egokitzeko nekazaritza ustategien inbertsioetarako laguntzen ebazpen proposamenari, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 446/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea 98/2020 kreditu transferentziaren espedienteari, 10.875,18 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Urez hornitzeko kudeaketa plana" eta "Green proiektuaren likidazioa" partida berriak, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 447/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Kanpezuko Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat izenpetzeari, etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 448/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Guardiako Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat izenpetzeari, etxebizitza komunitarioa kudeatu eta funtzionarazteko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 449/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Planaren esparruan nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntza deialdiaren ebatzenari. Deialdia Kontseiluaren apirilaren 7ko 13/2020ko Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 450/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Onespena ematea Antoñanan Vasco-Navarro ibilbide berdeko automotoreen antzinako pabilioia leheneratu eta birgaitzeko obren bukaeraren ziurtagiriari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 451/2020 Erabakia, urriaren 6koa. Hasierako onespena ematea Kontrastan hondakin uren araztegia eraikitzeko proiektuari, bai eta onura publikoaren adierazpenari eta eragindako ondasunak eta eskubideak okupatu beharri ere.